

Euskal Kultura II : Lehen eta bigarren gaien iruzkina

Etnia, arraza, kultura eta herri kontzeptuak sarri agertzen dira eguneroko bizitzan, baita hizkera akademikoan ere. Errealitatearen esparru ezberdinei erreferentzia egiten badiete ere, kontzeptu hauek era nahastuan, ongi mugatu gabe, erabiltzen dira askotan; praktikan, katramilatuta agertzen zaizkigu.

Etnia lurralde bati lotua dagoen identitate bat da (nahiz eta izan diren, judutarrak eta erromani edo ijituak bezala, lurraldearekiko lotura ezberdin edo berantiarra izandako etniak ere), beti kolektiboa dena. Lurralde eta jende talde jakin batekin lotutako identitatea izanik, etnizitatea jende talde batek leku konkretu batean garatutako bizimodu eta ohiturekin lotzen da. Egiten dugun kulturaren definizioaren arabera, gertuago edo urrunago egongo da hark seinalatzen duen errealitatea etniak seinalatzen duenarengandik. Etnia kulturaren ulerkera mugatua baino haratago dijoa, etnikoa denak ohitura eta arte espresio batzuei erreferentzia egin badezaieke ere leku jakin bateko jende jakin baten bizitzeko eta haien burua kolektiboki imaginatzeko erarekin baitago lotua.

Etnizitateak identitatearen auzia galdegiten du, eta hari lotua, etnozentrismoaren auzia. Izan ere, ohikoa da etnia bakoitzak bere burua besteen gainetik, edo behintzat aparte, berezi, kontsideratzea. Asko eztabaidatu bada ere baieztapen honen unibertsaltasunaz, “gu” eta “haiek”en arteko bereizketa orok, nire ustez, ez ditu zertan ondorio negatibo edo diskriminatzaileak ekarri, historiak beste zerbait iradokitzen digula ematen badu ere.

Zer alde dago “etnia” eta “herri” kontzeptuen artean? Ezberdintasun nagusia herri hitzaren polisemia da, sarritan “klase popularrak” esamoldea ordezkatzeko baitu, beste batzuetan berriz etnia edo nazio kontzeptua ordezkatzeko duelarik (nahasmen hau sortzen da, adibidez, Euskal Herria kontzeptuarekin). “Nazio” hitza ere era ezberdinetan erabili ohi da, baina era orokorrean esan dezakegu estatu modernoaren sorrerarekin batera garatzen den identitate kolektibo bat dela hau, aldi berean ideologia politiko bati lotua joaten dena (nazionalismoa). Ideologia honek nazioa estatu batekin lotzen du. Esan genezake nazionalismoa etnizitatearen

forma modernoa dela. Ohikoa da ideologia honek etnia, arraza eta herri kontzeptuak bere interesen arabera erabiltzea, eta horrek nahasmena areagotzen du.

II Mundu Gerra arte “arraza” hitza oso erabilia zen jende talde ezberdinak identifikatzeko. Euskal Herrian, Barandiaran eta Aranzadi antropologo fisikoek lan handia egin zuten buruhezurrak neurtzen balizko euskal arraza bat aurkitzeko. Gaur egun, ordea, kontzeptu hau gehiago erabiltzen da jendearen superioritate edo inferioritatea zer eratan den sozialki eraikia aztertzeko, irizpide objektiboekin bereizi daitezkeen gizataldeak identifikatzeko baino. Orain, genetistek “populazioei” buruz hitz egiten dute, RH edo ADNa aztertuz munduan egondako gizataldeak eta haien mugimenduak aztertzeko.

Iraganean pisu handia izan badute ere, gure garaian ohikoagoa da etniaren definiziorako irizpideak kulturalak, eta ez biologikoak, izatea (nahiz batzuetan zaila den naturak eragiten duenaren eta kulturala denaren arteko bereizketa egitea). Joana da EAJren parte izateko euskal abizenak edukitzea beharrezkoa zen garaia (abizena ere gauza kulturala da, baina inplikazio biologizistak, jatorriari lotutakoak, dituen). Batez ere ezker abertzalearen ondorioz eta Federico Krutwigen *Vasconia* (1973) bezalako lanekin, euskal identitatea birmoldatua izan da, eta euskara bilakatu da haren elementu zentrala. Euskaldun askori iruditzen bazaigu ere hau ezingo zela beste era batean izan, komeni da jabetzea identitatea eta hizkuntzaren arteko lotura ez dela zertan beti horrela eman: Irlandan katolizismoak duen garrantzia horren oroigarri bat da.

Euskara euskal etnoidentitatearen ezaugarri zentrala izateak badu bere konplexutasuna: Izan ere, Euskal Herria esaten diogun lurraldean gutxiengoa da euskalduna (eta are gutxiago Iparraldean), eta euskaldun oro elebiduna da bizikletaz ibiltzen ikasten duenerako. Baina Euskal Herria den eremu honetan, frantsesez, gazteleraz, eta gero eta gehiago, Europaz kanpoko hizkuntzak erabiltzen dituzten hiztunak ere badira. Honek arazo nabarmenak sortzen ditu euskal identitate etnikoa eta nazionala definitzerakoan.

Hori horrela, saiakera handiak egin dira euskara zabaltzeko eta euskera irakastea aukera erreal bilakatzeko ahalik eta jende gehienarentzat. Euskal nazionalismoak, batez ere, ezkerrekoak, euskal etniaren hizkuntza gisa identifikatzen den hizkuntza honen defentsa printzipio politiko bezala hartu du. Ezkerreko diot ezker abertzale esaten diogunak jokatu izan duelako historikoki paper garrantzitsuena euskararen sustapenean nahiz haren egoeraren

analisian. Euskera batuaren sorrera gatazkatsuari erreparatzea baino ez dago mundu modernoan euskararen biziraupena erabat beharrezko zen estandarizazioa benetan zeinek bultzatu zuen ikusteko: Bai, EAJko Koldo Mitxelenak exekutatu zuen batua, baino bultzada Baionako Euskal Idazkaritzatik (1964) zetorren, euskera desagertzen uzteko prest etzegoen mugimendu politiko aktibo batetik. Euskera puru mantendu nahi zuten horiek, bitartean, Euskarazaleak fundatzen ibili ziren, eta *Tus hijos y el euskera. El mito del batua* (Josu Arenaza, 1974) bezalako liburuak idazten¹.

Euskera “mordoiloaren” eta garbizaleen arteko eztabaidak gaur egun ere badu bere eragina; ez da arraroa entzutea euskaldun bat beste bati “hori erdarakada bat da” esaten. Ziur aski, ezin zitekeen beste era batera izan, hori baitu dialekto asko dituen eta tradizio literario sendorik gabeko hizkuntza bat estandarizatzek, eta hain berandu estandarizatzek ere, termino erlatiboetan. Euskeraren batasuna ezartzeko prozesu partikularrak azaltzen du, baita ere, euskalki eta batuaren arteko harreman berezia, non, inguruko hizkuntzekin gertatzen denaren kontrara, dialektoa den prestigio linguistikoa gehien duen erregistroa².

Euskeraren izaera politizatuaren inguruan ere eztabaida handia egon da. Politizazioa hau dominatzen dutenen aurka zera esan dezakegu: euskera egoera diglosiko batean ez balego ez litzakela beharrezkoa izango haren defentsa politiko bat, eta egoera diglosiko hori bera, besteak beste, faktore politikoek eragina dela. Horrelakoetan ohikoa izaten den bezala, tentsio linguistikoa honen atzean tentsio identitario bat egon da, eta oraindik ere badago. Gaur egun, hala ere, aldaketa handiak eman dira diglosiaren esparruan: Lehen “larre hizkuntza” zena orain unibertsitateetan erabiltzen da, gauza harrigarria, orain dela ez hainbeste fisika kuantikoa euskeraz ikastea astakeria bat zela entzun behar zuen gizarte batentzako. Kale erabilerari buruzko datuek, ordea, erakusten digute normalizazioaren bidea konplexua eta zaila dela, eta ofizialtasuna, bere horretan, ez dela hizkuntza baten biziraupen eta are gutxiago loratzerako baldintza nahikoa. Nafarroako, Nafarroa beheko, Lapurdiko eta Zuberoako

¹ Ez nuke nahi, inolaz ere, euskararen sustapen eta estandarizazioa ezker/eskuin dikotomia sinplistarekin azaldu, barnera begira homogeenak ziren bi iritzi talde existituko baziren bezala. Esan nahi dudana da ezberdintasun politikoek bere papera jokatu zutela batuarekiko jarrera definitzerako orduan, eta ezkertiarak (hain lausoa den kontzeptu bat erabiltzea ametitzen bazait) ziren nazionalisek eman zutela, Euskaltzaindiaren inobilismoaren aurrean, euskera batzeko beharrezko bultzada politikoa.

² Euskalkien eta batuaren harremana ez da, noski, hemen esaten dudana bezain sinplea. Batuaren aurkako erreakzioa eta euskalkien goratzea fenomeno erreal eta garrantzitsuak dira, hala ere.

egoera linguistikoak, hala ere, nahikoa ez izanik ofizialtasunak garrantzia handia duela erakusten dute.

Nazioaren auzira itzuliz, aipatu nahiko nuke jada bere sorreratik tentsio bat egon zela nazionalismoaren eta kosmopolitismoaren artean, lokala eta partikularra goratzen zuenaren eta unibertsaltasunaren artean. Tentsio horretan, nazionalismoan askotan atzerakoi eta baztertzaila gisa izan da ikusia. Seinalatu behar da, ordea, nazio guztiek ez dutela berdin parte hartzen unibertsala den horretan.

Nazionalismoaren eta etnoidentitateen inguruko eztabaida historikoek bizirik jarraitzen dute gaur egun, eta politikarekin eta identitate kolektiboekin lotutako kontzeptuekin gertatu ohi den bezala, ez dago adostasunik haien definizioan. Gauza bera esan dezakegu euskal nazionalismoaren eraketa prozesua markatu zuten eztabaidetaz: Euskal kultura zer den, euskal nazio zeinek osatzen duten, euskal identitateak zertan datzan... ezbaian dauden gauzak dira, eta horrek esan nahi du etengabe gaudela behartuak auzi hauen inguruan hausnartu eta gure gogoetak aldatzea den errealitate honi egokitzera.